

**OÑATIKO UDALA ETA TXANDA MERKATARI ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA
HITZARMENA, 2024KO EKITALDIAN MERKATARITZA SEKTOREA SUSTATZEKO,
PROFESIONALIZATZEKO ETA ELKARTEGINTZA INDARTZEKO.**

BILDU DIRA

Izaro Elorza Arregui, esku hartzen du Oñatiko Udalaren (P2006300D) ordezkari gisa.

Ana Belén Lobo De Pablo, esku hartzen du Txanda Txantxiku Denderixen Alkartia (G20593620) ordezkari gisa.

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz, eta kontutan hartuta jarraian azaltzen diren

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak tokiko merkataritza sustatzeko eta lehiakorragoa egiteko helburuarekin eguneratu zuen 2021 ekitaldian Oñatiko Merkataritza Biziberritzeko Plana, Txanda elkartearekin eta sektoreko eragileekin batera. Plan horretan zehazten dira datozen urtetan tokiko merkataritza sustatzeko eragile bakoitzak, horien artean Txanda merkataritza elkarteak, garatu beharreko lan-ildoak eta ekintzak.

Bigarrena.- Txanda Txantxiku Denderixen Alkartia (aurrerantzean Txanda elkarteak) txikizkako merkataritza sektorea sustatzeko, profesionalizatzeko eta elkartegintza indartzeko helburua daukan Oñatiko erakunde bakarra da. Jarduera horrek izaera berezia ematen dio eta herri- gizarte- eta ekonomia-interesekoa dela aintzat hartzen da.

Hirugarrena.- Txanda elkarteak dirulaguntza eskaera egin dio Oñatiko Udalari 2024 ekitaldiko ekintza plana garatzeko. Plan horrek bat egiten du Oñatiko Merkataritza Biziberritzeko Planarekin jasotako lan-ildoekin.

Laugarrena.- Oñatiko Udalak Txanda elkarteari ematen dion dirulaguntzak elkartearen eta udalaren arteko lankidetzaren publiko - pribatua dauka oinarria. Bi erakundeek arteko elkarlana funtsezkoa da Oñatiko tokiko merkataritzaren garapena sustatzeko.

Bosgarrena.- Dirulaguntza hau ematean indarrean dauden arauak arautuko dute Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa. Jarraian aipatzen dira indarrean dauden arauak:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

- Oñatiko Udaleko dirulaguntzen plan estrategikoa, 2022/10/11 Alkate Dekretuz onartutakoa.
- Oñatiko Udaleko dirulaguntzen ordenantza arautzailea (2009ko martxoaren 23ko GAO, 54. zk.)

Seigarrena.- Dirulaguntza eskaerarekin batera 2024ko ekintza plana aurkeztu da eta bertan zehazten dira Txanda elkarteak aurtengo ekitaldian garatuko dituen ekintzak. Besteak beste honako hauek:

- Komunikazio kanpaina
- Udazken-neguko azken txanpa
- Martxoak 8
- Korrika
- Margo taldearen erakusketa
- Oñatin erosiz, Oñati bizirik
- Udaberri-udako azken txanpa
- Marrazki erakusketa
- Udazkeneko kanpaina
- Gabonetako kanpaina
- Formakuntza
- Merkataritza bulego teknikoa

Zazpigarrena.- 2024ko udal aurrekontuen 1000.480.241.03.01 2024 (5653) kontu sailean jasotako dago 20.000 euroko diru partida bat Txanda elkartearen izenean.

Zortzigarrena.- 2024ko ekainaren 18an Oñatiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuen Txanda elkarteari dirulaguntza ematea eta bi erakundeek arteko lankidetzak hitzarmena sinatzea, elkartearen 2024ko ekintza plana garatzeko.

Azaldutako guztiagatik, bi erakundeek honako hau

HITZARTZEN DUTE,

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea Oñatiko Udalaren eta Txanda merkataritza elkartearen lankidetzak akordioa adostea da, 2024ko ekitaldian Oñatiko merkataritza sektorea sustatzeko, profesionalizatzeko eta elkartegintza indartzeko dirulaguntzaren baldintzak zehaztuz.

Bigarrena.- Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean eta urte beteko iraupena izango du, eta epe hori igarota, ondorioz gabe geratuko da.

Bigarrena.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Oñatiko Udalak gehienez ere 20.000€ko dirulaguntza emango dio Txanda merkatari elkarteari 2024ko ekintza plana garatzeko.

Txanda elkarteak 2024ko ekitaldian izango dituen gastuen %100 finantzatzeko erabili ahal izango du dirulaguntza hau, betiere, aurkeztutako gastuak ekintza planarekin lotura badute.

BEZa diruz lagundu daitekeen gastua izango da onuradunak haren zati bat edo kopuru osoa ordaintzen duenean eta ezin duenean berreskuratu. BEZa diruz lagundua izateko, onuradunak egiaztatu egin beharko du justifikazio-agiriekin batera aurkeztuko duen dokumentazioan, salbuespen-ziurtagiri edo hainbanaketa-ziurtagiri baten bidez.

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntzaren ordainketa era honetara egingo da:

- Dirulaguntzaren %50, hau da, 10.000€, hitzarmena sinatzen den momentuan.
- Dirulaguntzaren gainontzeko zenbatekoa, gehienez ere %50a osatu arte, ekitaldiaren amaieran, memoria eta zuriketa ekonomikoa aurkeztu eta udalak onespena emandakoan.

Laugarrena.- Dirulaguntzaren zuriketa.

Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa 2024ko ekitaldiaren amaieran zehaztuko da, Txanda elkarteak ekitaldian burututako ekintzen memoria eta diru sarrera eta gastuen zuriketa aztertu ostean. Gastuaren %100 justifikatu ezean, elkarteak zati proportzionala itzultzeko konpromisoa hartzen du.

Gastu eta sarrerei dagokionez, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria.
- Gastuaren izaeragatik fakturarik ezin denean aurkeztu, salbuespen moduan onartuko dira:
 - Gastuaren ordainagiriak, Txanda elkartearen zigiluarekin, gastuaren data eta zenbatekoarekin eta hartzailearen izen-abizen, NAN zenbaki eta sinadurarekin. Elkarteak banatutako sariak ere era horretan justifikatuko dira.
 - Deskontuak eta antzekoak fidelizazio txartelaren bidez burututakoak badira, txartela kudeatzen duen entitatearen zigilua daraman agiria aurkeztuko da, bertan era horretako mugimendu guztiak identifikatuta, egitasmoa bereizita.
- Elkarteak izandako diru sarreraren azalpenak eta horren egiaztagiriak:
 - Diru laguntzen ebazpena edo ordainketaren agiriak.
 - Bazkideen kuoten ordainagiriak.
 - Beste diru sarrerarik balego, horren justifikazio dokumentala.

Aipatutako zuriketaren dokumentazioa aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 15an izango da.

Bosgarrena.- Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzekin, beti ere, gain-finantzazioa gertatzen ez bada. Kasu horretan, udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa gutxituko da gastu eta sarreraren arteko diferentzia orekatu arte. Gain-finantzazioa gertatzen bada elkarteak izango du udalari jakinarazteko eta dirulaguntza itzulketa egiteko betebeharra.

Seigarrena.- Dirulaguntza emateko baldintzen egiaztapena.

Oñatiko Udalak, Nisae - Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dirulaguntzaren izapidetze administratiboa egin ahal izateko. Txanda elkarteari dagozkion honako zerbitzuak kontsultatuko ditu udalak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSDN-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.

Zazpigarrena.- Euskararen erabilera. Euskararen normalkuntza eta erabilera sustatzeari dagokionez, Txanda elkarteak konpromisoa hartzen du merkataritza sektorea sustatzeko, profesionalizatzeko eta elkartegintza indartzeko abian jartzen dituen ekintzetan euskarari lehentasuna emateko; idatzizko zein ahozko komunikazioetan eta jendaurreko ekitaldietan euskara erabiliz eta horiek ele bitan egiten diren kasuetan, euskarari era nabarmenean lehentasuna emanez.

Eta ados daudela adierazteko bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute Oñatin, 2024ko ekainaren 19an.

IZARO ELORZA ARREGUI
OÑATIKO ALKATEA

ANA BELÉN LOBO DE PABLO
TXANDA MERKATARI ELKARTEKO
LEHENDAKARIA